

Euskal Herriko futbolariak



Nazio bat Selektzio bat Federazio bat

Euskadiko Futbol Federakundeak pasa den abenduaren 20an jakinarazi bezala, tamalez, aurtengo abenduan ez da San Mamesen gizonezkoen selektzioak jokatzekoa zuen partidarik izango. Federazioaren jarrerak, emakumezkoen partida ere bertan behera geratu izana ekarri du. Egoera honen aurrean, gauzak argitze aldera, honakoa adierazi nahi dugu:

1.- Gizonezkoen selektzioari “Euskal Herria” izena jartzea Euskadiko Futbol Federazioak eta futbolariok elkarlanean hasitako bidearen ondorioa izan zen, alde bien oniritziz adostutakoa. Federazioko kideek jakinarazi zigutenez, adostasun horren berri Kataluniaren aurkako partida baino lehen behar zen leku guztietan eman zuten eta ez zuten aurkako iritzirik jaso. Ondoren sortu dira arazoak. Aurtun “Euskadi”ra itzuli nahi izatearekin Federazioak emandako hitza ez du bete eta elkarrekin aurrera pasuak emateko hitzartu genuen bidea bete-betean moztu du.

2.- Federazioko ordezkariak beraien artean izan dituzten tira-birak tarteko, ezin izan dira bilerak behar ziren argitasun eta zehaztasunarekin burutu. Zentzu honetan, beraiek publikoki ukatu arren, argi eta garbi baieztatu dezakegu, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak prozesu honetan izandako esku-hartzea. Ez bakarrik “Euskadi” izena inposatzean, baita bileretako partaideen osaketan ere.

3.- Aurrera begira, borondate osoa dugu arazo guztia konpondu, Euskal Herriko zazpi herrialdeetako jokalariek batuko dituen futbol selektzio ofizialaren aldeko pausuak ematen jarraitu, adostasunetara iritsi eta partidak jokatzen jarraitzeko. Baina, alde baten borondatearekin ez da nahikoa. Hartutako konpromisoak betetzen ez badira, nekez egin daiteke aurrera. Hitzek bada ere, azken bileran batu ginen hiru aldeek biltzen jarraitzeko eta ofizialtasunaren bidean aurrera egiteko konpromisoa hartu genuen. Gai hau lantzeko, behin baino gehiagotan eskatu izan dugu alde guztiak bilduko dituen komisio bat sortzeko. Oztupoak gainditu eta guztion artean aurrera egitea da gure ustez biderik egokiena. Aitortu behar dugu, beraien aldetik bat-batean aurrera egiteko “borondatea” partida jokatzeko 6 egunen faltan eta partidua arriskuan zegoela ikusi zutenean azaltzeak, zalantzak sortzen dizkigula.

4.- Aurtun partidarik ez izatea albiste txarra da, inolako zalantzarik gabe. Baina sortu den saltsa guzti honek alde bakoitzaren asmoak, borondateak eta benetako aurpegiak ikustarazteko balio izan badu, gaitz-erdi. Horretan behintzat, zerbait aurreratu dugu.

5.- Beti esan izan dugu eta berriro diogu, izenarena azaleko eztabaida dela. **Benetan garrantzia duena selektzioaren osaketa, ofizialtasunerantz eman beharreko pausuak zein diren adostea eta helburua lortzeko borondatea izatea da. Hor kokatu behar da eztabaida.** Zentzu honetan, gure ikuspegia pasa den azaroan plazaratutako prentsa oharrean eman genuen. Agiri hartan emandako arrazoiak oinarritzen gara “Euskal Herria” izena egokiagoa dela defendatzeko.

6.- Hala ere, partida jokatzeko azken aukera izan zitekeela pentsatuz, azken orduko bileran, partida salbatzeko baliagarria izan zitekeelakoan, proposamen bat jarri genuen futbolariok mahai gainean: *Euskal Selektzioa* izenarekin antolatzea partida. Argi genuen eta argi dugu, izen honek ez duela aurrerantzean erabiltzeko balio, baina gure borondate onaren erakusgarri behintzat bazela pentsatzen dugu. Beraiek, proposamen honi ere ezezko borobila eman zioten eta garbi geratu zitzaigun “Euskadi” hitza agertuko ez zen proposamenik ez zutela onartuko; nahiz eta jakin, jarrera horrek partida ez jokatzea ekarriko zuela. Eta zoritxarrez, hala gertatu da.

Euskal Herriko futbolariak



Nazio bat Selektzio bat Federazio bat

Futbolarien proposamenaren ondoren etorri zen beraiena: haiek, partidua "Euskadi" izenarekin jokatzeari proposatu zuten (beraien jarreraren erakusle izan da, azken-aurreko bilerara etorri aurretik, jada partidarako sarrerak eta kartelak "Euskadi" izenarekin prest zituztela). Beraz, "Euskadi" izena mantendu eta futbolariengana gerturatzeko keinu bezala edo, kamisetatan "Euskal Herria" izena eta Euskal Herriko armarrria jarriko zituztela esan zituzten. Aurreko urteko kamisetarekin jokatzeari, alegia. Horrela amaitu zen bilera.

Azken proposamen hau, hurrengo goizean futbolarien artean aztertu genuen eta ez zela onargarria deliberatu. Futbolarien artean, ez zen adostasunera iristeko proposamen bat bezala ikusten, sei egunen faltan, prestatuta zeuden kartel, sarrera eta kamisetekin partida "Euskadi" izenarekin aurrera ateratzeko saio bat zela ulertu genuen.

7.- Emakumezkoen partida bertan behera gelditu izana ere, orain arte esandako guztiaren testuinguru berean ulertu behar da. Euskal Herriko Futbolariok bat eginda gaude plazaratu ditugun hausnarketen inguruan. Horregatik, helburuetan eta emandako pausuetan ados egonik, partida bat ez jokatu eta bestea jokatzera joatea ez dela egokia, uste dugu.

8.- Aipagarria eta esanguratsua da, ia 1.000 kirolarik, hainbat eta hainbat gizarte eragilek, zaletuek etab. publikoki Euskal Herriko Selektzioari eman dioten babesa. Benetan, penaz hartzen dugu aurten zaletuek partida hauetaz gozatzeko aukerarik ez dutela izango jakitea. Guretzat ere, ziurrenik, urteko partidarik politena eta bereziena da. Gu, beti egongo gara ofizialtasuna lortze bidean aurrera pausoak eman nahi dituen laguntzeko prest. Baina era berean, oztopoak jartzen ari denaren jarrera ikustarazten saiatuko gara. Euskal Herriko Selektzioak sortzen duen ilusioak horrenbeste merezi du.

9.- Gure adierazpenaren baitan ez dugu lerro bat bera erabiliko, azken asteotan gure profesionaltasuna edo ibilbide profesionala epaitzen jardun duten politikari, tertuliano eta interesez beteriko komunikabideei erantzuteko. Gure sentipenetan haserrea eta egonezina erein badute ere, Euskal Herriko jendartearen sinesten dugu eta uste dugu euskal jendarteak ikusten eta baloratzen jakingo duela zer gertatu den, zergatik eta nork bultzatuta. Euskal Herriko Futbolariok, Euskal Herriko selektzioarekin dugun konpromisoari eutsiko diogu.

Euskal Herrian 2008ko abenduaren 22an

Euskal Herriko Futbolariak

AZKEN URTETAKO IBILBIDEA

EUSKADI-SERBIA partida (2006ko Abenduak 27)

Partida hau jokatu baino lehenagotik Euskadiko Futbol Federazioko kideekin biltzen hasiak ginen, ofizialtasunaren aldeko ibilbidean indarrak batzeko eta selekzioaren inguruan genituen kezka azaldu asmoz. Kezka horien artean zeuden adibidez: selekzioaren osaketa (3 edo 7 herrialde), selekzioaren Gabonetako ohiko partida jokatzearaz aparte, urtean zehar "ahaztu" egiten ginela selekzioaz, ez zegoela inongo plangintzarik aurrera begira, eragile desberdinez osatutako batzorde modukoren bat osatzearen beharraz noizbait ofizial izateko bidea lantzeko, aztertzeko eta jarraipen bat emateko (federazioa, jokalaria, zaletuak, Eusko Jaurlaritzako kirol saila, ESAIT, ...), bide honetatik ofizialtasuna lortuta ere Nafarroako eta Iparraldeko futbolariak selekziotik kanpo geratuko lirakekeela...izenaren kontuaz ere jardun genuen eta baita beste gai batzuen inguruan ere.

Gogoratu behar da ESAIT-ek ez zuela partida hau babestu baina jokalariai partida jokatu eta aurrera begira federazioko kideekin hitz egiten segitzeko aukera egin genuela. Hala ere, argitu behar dugu, partida hau jokatu aurretik Euskal Herria izenpean jokatzearekin ados geundela jada federaziokoak eta jokalariai. Izen aldaketa ez gauzatzeko arrazoia, kartelak eta sarrerak "Euskadi" izenarekin ordurako eginak omen zituztela izan zen. Gauzak horrela, aurrera jarraitzea erabaki genuen, elkarlanean segitzea eta hurrengoan aldaketa gauzatzekotan geratu ziren.

VENEZUELA-EUSKADI (2007ko Ekainak 20)

Sei hilabete beranduago, Venezuelan jokatu genuen partida. Aurrez planteatu ziguten partida hau jokatzeko aukera, eta guk baietz erantzun genien. Bi aldeek aurrera pausu bat bezala ikusten genuen irteera hura. Era honetako irteerak berak duen garrantziagatik, izen aldaketaren gaia hurrengo baterako alboratu zen. Honek federazioari, izen aldaketa etorriko zela, esan beharreko lekuetan azaltzeko nahiko denbora ematen zion. Esan ziguten eta sinesten diegu hala egin zutela eta ez zutela aldaketa egitearen aurkako iritzirik jaso. Orain kontra agertu diren zenbait ere jakinaren gainean zeuden.

EUSKAL HERRIA-CATALUNYA (2007ko Abenduaren 29)

Partida giro bikainean jokatzearaz aparte, Bilboko kaleetan jendetza izugarria bildu zen aldarrikapena eta festa uztartuz. Gure ustez, Euskal Herria izenarekin jokatzearaz, ofizialtasunaz hitz egitean zertaz ari garen argitzeko (hau da, zazpi lurraldetako jokalariek jokatu ahal izango duten selekzioaren ofizialtasunaz) eta selekzioaren osaketa hobeto islatzeko balio izan zuen (halaxe esan zuten Federazioko kideek ere publikoki partiduen aurkezpenean. Ez da ahaztu behar, partidaren aurkezpen horretan izan zela Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaria bera ere). Horregatik, izenaren atzean dagoena argitzea zen izen aldaketaren helburua, hau da, mamiaren inguruan zalantzak uxatzea.

Partida honen ondoren ederki ikusi genuen izen aldaketaren aurka zeintzuk hasi ziren kexaka. Egun borobil haren indarra aurrera egiteko erabili beharrean, berriro ere atzera pausoa nola eman pentsatzen hasiak ziren batzuk. Aurrerago ikusi dugun bezala Euskal Herriatik bertatik etorri da Federazioaren erabakia atzera botatzeko agindua, ez kanpotik.

FEDERAZIO ETA JOKALARIEN BILERA (2008ko Iraila-Urria)

Federazioak futbolarien ordezkaritza batekin bilera deitu zuen eta bertan selektzioa berriro "Euskadi" izendapenera pasako zela esan ziguten, bestela partidarik ez zela jokatu. Babeslerik ezin omen zutela lortu, San Mames-en jokatzeko arazoak egongo zirela...eta garrantzitsuena, erabakia hartzera behartu egin zituztela azaldu ziguten. Nork eta nondik behartu zituzten argi esplikatu ziguten, beraiek ere ez omen zeudela ados, gure haserrea ulertzen zutela, baina partida ezer pasa ez balitz bezala jokatzeko eta ezer ez esateko gomendatu ziguten. Jokalarien artean hitz egitekotan geratu ginen eta partida jokatzeko eguna hurbildu ahala berriro ere elkarren berri izatekotan.

HAUTATZAILE ETA JOKALARIEN BILERA (2008ko Urriaren 27)

Jokalarien artean iritziak bildu eta gero, aldaketaren aurrean aurkako jarrera nabaria zela ikusi genuen. Hautatzaileekin bildu ginen eta beraiek ere "Euskal Herria" izena egokiago ikusteaz gain, aldaketa egiteko moduarekin harrituta zeudela jakinarazi ziguten. Futbolariokin ados zeuden eta gutxienez, federazioa, jokalaria, hautatzaileak eta Eusko Jaurlaritzako kirol arduradunen bat bilduko zituen batzar bat egitea ikusten genuen egokiena. Agindua eman zuenak aurpegia eman eta gutxienez gauzak esplikatzea garrantzitsua iruditzen zitzaigun denoi.

Bitartean federazioari partida arriskuan zegoela jakinaraztekoan gelditu ginen, ez geundela atzera pausorik emateko prest.

FEDERAZIOAK IRANEN AURKAKO PARTIDAREN BERRI EMATEN DU (Azaroak 4-5)

Federazioak Iranen aurkako partidaren berri eman zuen presaka, guk beraiei deitzeko asmoa genuela jakin arren. Egun horretan bertan, Federazioko presidenteak partida "Euskadi" izenarekin jokatu zela publikoki esan zuen irratia bidez. Ez hautatzaileek, ez eta jokalaria ere, ez geneukan horren berririk, nahiz eta aurten arte beti ematen ziguten publiko egin aurretik partiden berri. Antza denez, pauso hori partida ez jokatzearen ardura guztia jokalarion esku uzteko asmoarekin egin zuten. Partidaren berri ematerako, bazekiten gure jarreraren berri.

EUSKAL HERRIKO FUTBOLARIEN AGIRIA (Azaroak 13)

Gure jarrera azalduz agiria kaleratu genuen 165 futbolari eta futbolari ohik.

EUSKAL HERRIKO KIROLARIEN AGIRIA (Abenduak 3)

800 kirolarik baino gehiagok futbolariak Euskal Herriko selektzio ofizialaren alde eta futbolariak babesa eskainiz agiria plazaratu zuten.



FEDERAZIOA, HAUTATZAILEAK ETA FUTBOLARIEN BILERA (Abenduak4)

Federazioak bilera egiteko deia luzatu zigun. Bertan federaziokoak, hautatzaile bat eta jokalaria izan ginen. Eusko jaurlaritzako norbaiten hutsunea nabaria zela ikusirik elkartu ginen. Ordura arte inoiz azaldu ez ziren pertsona batzuk etorri ziren Federazioko ordezkari gisa, bertako idazkariarekin batera. **Gerora jakin ahal izan dugunez, Jaurlaritzako kirol zuzendariaren “gomendioa” edo erabakia izan omen zen aurreko kide gehienak bilerara ez joatea. Beraz, bilerarako deia egin zutenak ez ziren agertu bilerara, ezta federazioko presidentea ere!** Gertaera hau ezin genuen ulertu. Eztabaidak eztabaida, beti egon izan delako itxuraz behintzat Federazioa eta futbolarien artean hitz egiteko eta adostasunetara iristeko jarrera.

Ez zuen fruitu handirik eman bilerak eta azken bilera baten eskaerarekin amaitu genuen eguna.

FEDERAZIOA, HAUTATZAILEA, JAURLARITZAKO ARDURADUNA ETA JOKALARIEN BILERA (Abenduak 17)

Nahiz eta guk aurrez askotan eskatu, partidaren eguna baino sei egun lehenago egin zen azken bilera partida mantendu asmoz. Hizketaldi luze baten ondoren, bi proposamen jarri ziren mahai gainean. Guk Euskal selekzioa izenarekin jokatzeari proposatu genuen erdi-bideko aukera bezala, partidua salbatze aldera, nahiz eta aurrera begira izen horrek ez duela balio garbi izan. Hasieratik ezezkoa eman zioten proposamenari. Beraien proposamena hau izan zen: Euskadi izenarekin jokatzeari eta kamisetan Euskal Herria izena agertzea, Euskal Herriko armariarekin eta federazioko logotipoarekin batera. Garbiago esanda, aurreko urteko kamiseta berdinarekin jokatzeari partida, ez gehiago eta ez gutxiago. Sarreretan Euskal Herria izena agertuko zenik ez ziguten esan, “Euskadi” izenarekin aterata zeuzkatela baizik.

Hurrengo eguerdian esan genien, jokalaria gehiagorekin hitz egin ondoren ez geundela ados proposamenarekin eta beraiek bertan behera utzi zuten partida.

Urte berriarekin batera hori bai, hitzez bada ere, alde guztiak gai hauen eta beste askoren inguruan hitz egiten jarraitzeko konpromisoa hartu genuen. Ia orain artekoak baino fruitu hobeak ematen dituen. Hori da gure nahia.

Euskal Herrian 2008ko abenduaren 22an

Euskal Herriko Futbolariak